**MOTZAK** EUROPAKO HAUTESKUNDEEN EMAITZAK ETA BALORAZIOAK
**GEHIGARRIA** GAZTIA NAIZ BARREN · **KIROLA** FINALISTA EGUNEKO DOMINA IRABAZLEAK

# BARRen
ASTEKARIA

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2004ko ekainaren 18a/XII. urtea/493. zkia




EKAINAK 25

# XX. Nahaste Borraste

"EZIN IRABAZI DU BATEK, BESTE BATEK GALTZEN EZ BADU" (Seneca)


BASKO RENT
GARBIKETA
MANTENIMENDUA
AUTOEN ALOKAIRUA
Tel.: 902 103 287
Sigmako industrialdea - 7 eta 8 pabilioiak
KONPONKETA TAILERRA
MANTENDU EZAZU
ZURE AUTOA
GARBI ETA PREST!
GARBIKETA AUTOMATIKO
PUBLIKOA
MANTENIMENDU OROKORRA
OLIO, BALAZTA eta PNEUMATIKOEN ALDAKETA
BARRUKO GARBIKETA INTEGRALA
ESKAINTZA BEREZIA:
PNEUMATIKOAK 4 X 3
3 ORDAINDU ETA 4 JARRIKO DIZKIZUGU
MICHELIN
Firestone
GOODYEAR


Salento
pizzeria eta taberna
II. URTEURRENA
Larunbata, hilak 19
DVD bat zozketatuko dugu
Mila esker denoi
San Frantzisko, 48 · Tel.: 943 74 01 96



## Izarrak oparitzeaz

Preso batek hala esan zion zelda-lagunari alaba txikiaren bisita izan ondoren, negarrez:

-Alaba gehiago ez ekartzeko esango diet, ezin dut honekin.

-Zer gertatu zaizu?- erantzun zion kalabozoko lagunak.

-Alaba. Alabak uste du ez dudala eskurik. Eskuburdinekin mahaiaren hanketara lotzen dizkidate beti eskuak. Alabak ez dizkit inoiz eskuak ikusi eta uste du ez dudala eskurik. Eskurik gabeko aita duela esaten du. Gehiago ez ekartzeko esan behar diet.

-Zeuk ikusi. Baina eskurik ikusi ez eta eskurik gabeko aita duela pentsatzen badu, ikusten ez bazaitu aitarik ez duela pentsatuko du- esan zion lasai-lasai lagunak iluntasunetik. Gero isildu egin zen.

Mauricio Rosencofen hitzak dira.

-Ez dut bozkatuko, total, ez digute izarrik emango-esan zidaten joan zen astean.

Izarrek eman dute zeresanik egunotan.

Bada denbora lagun batek emailez opari bat bidali zidala: “izarra hitzaren bostgarren definizioa oparitzen dizut” zioen mezuak. Hori bakarrik. “Bereziki maitagarria den pertsona izendatzeko erabilitako izena” oparitu zidan. Bost izarreko piropoa. Eta geroztik gehiegi maite ditut izarrak. Gehiegi, nire botoa haietako baten truk saltzeko. Propaganda kanpaina bikaina baina, benetan, niri ez prometitu izarrik. Ez dut izarrik nahi.

Eta bai, bozkatu nuen. Eskuak mahai azpira lotuta dituenak etsitzen badu ez delako existitzen.

Ez dut izarrik. Ez dut eskurik. Baina nire zeldako lagunak ez dit esango alabak ahaztu nauenik.

**Uxue Alberdi**

asteko notizia



## Ministro bat Elgoibarren

Laneko historixak diala ta, pasa dan aste osoan atzerriko ministro baten laguntzaile lanak eitxia tokau jata eta esan leiket esperientzia bitxia izan dela. Ez naban uste horrelakorik tokatuko jatanik eta jokoz kanpo harrapatu ninduan aste osorako zetorrela jakitiak. Hala nola, Jaurlaritzako laguntzarekin piskanaka joan nintzan agendia betetzen: zer ohitura izango zitxun ere ez genekixan eta zerbait kezkatuta nenguan. Badao pelikula bat “paseando a Ms. Daisy” deitzen dana, ezta? Ba ni horrela sentitzen nintzan, “ministroa pasiatzen”.

Etorri zan Elgoibarrera eta lanekoak bete ondoren, Makina Erremintaren Museoa ikustera eraman gendun. Burni eta egur usainez inguraturik, antzinako 30 makinak polea bakar batek eraginda trasmisiñuaren bitxartez elkarrekin nola mugitzen ziren testigu izan zen, paretetan zintzilik dauden argazkixetatik, makina egile aitzindari ziren elgoibartar eta euskaldun lehen enpresariak so zitxula.

Plazara hurbildu giñan ondoren: Frontoia, Udaletxea, Eliza... Alkateak ohoreak egin zizkion eta berak makiña bat disfrutatu zaban gure antziñako parajeekin. Kalian behera abiatu giñan Errosarixo kaletik Kultur etxeraino. Atarixan, gigantiak zeuden gordetzeko zain, Trinidadiak pasa berri baitzian. Altzolako Dorretxeko zaindari erraldoiak ziruditen. Agintari bitxi hauen “agurra” izan ondoren, San Bartolome kaletik igo giñan, patxadaz, Baltasarreraino iritsi arte. Beste sorpresa bat Ministroarentzat gure soziedadien egitura eta ohiturak ezagutzia izan zan. Bera afizioz koziñero izanik, nola disfrutatu zitxuan Jose Inazio Muguruza sukaldariaren joan-etorriak eta jan-edan gozoak! Aste guztian jaten ikusi ez nabana han ikusi genduan, protokoloak alde batera lagata, beste edozein gonbidatu bezela, koadrilla arteko giroan.

Esker onez joan zan gizona bueltan bere herrira. Euskadiko lan griña eta aurrera egiteko gaitasuna mirestu zituen eta denbora libreak gozatzeko moduetaz ondo jabetu zen!

**Edurne Bilbao**

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Kexak ............................................. 5
motz Motz ............................................. 8
gehigarria ............................................. 11
kiRolAk ............................................. 20

2004-VI-18

## ELKARTASUN OIHUAK

Tartetxo bat baino ez dut falta Interpolen polizia-etxeko ate nagusira heltzeko; tartetxo luze bat, barruko harrak espaloiaren zoluan utzitako arrasto mukitsuak kateatu egiten bainau. Bapatean, mamuak bailiran, hormatzarraren zirrikituetatik zaldizko poliziak banan-bana irten dira euren legea zabaltzera, kale bazterreko zuhaitzak baino tenteago doazelarik. Poliki-poliki, nigandik urrundutako zaldien apoen zarata motelduz joan da kale kantoiak azken berbaroa irentsiz. Ni bitartean, hormaren zuria ondoan, eta zeruaren urdina goian, garita moduko sarrera abiatu naiz.

*¡Hola! Vengo a visitar a Josu Lariz Iriondo*. Hitzak egin ostean pasaportea eman diot uniforme urdinaren besaburuan kabu-galoiak erakusten dituen gazteari. *¿Ha estado alguna vez aquí?* Buruaren keinu lotsatiak ezetz esan dio. Gero, pasaportearen datuak mahaiaren gainean zabaldutako ohar-kuadernoan saltoka aritu dira, eta bertan atsedena hartu dute nire begiek -ezkutuan egongo ziren kamarak bezala- inguruko bazterrak arakatu bitartean. *¿Donde se hospeda? En el hotel Splendid; calle Rivadavia*. Ate bi zeharkatu, korridore laburra atzean utzi, eta hantxe nuen zain burdinezko atearen astuna arnasa hartzeko egokitutako leihatila txikiaz apainduta. Burdi hesien parean begiak paratu, eta oihu lotsati batez -¿Sí?- barruan entzuten zen telebistaren burrunba zulatzen saiatu banaiz ere, beste bitan esan behar izan dut, harik eta gartzeleroaren giltza-sortak egin ohi duen hotsa entzun arte. *¡Vasco, tenés visita!* Funtzionarioak esandako hitzak ziztu bizian joan dira Josuren bila, eta konturako orduko nire aurrean nuen: *Eup! Zer, ezagutu ez, ala? Mugertza!* Josuren eskuaren keinuak bere ziegara eraman nau, eta bertan ikusi dut bere ondasun guztia: mahaia, aulkia, ohea, liburuak..., eta jendea bazter guztietan: etxekoak, Juanita, bere emazte Juanita. Ilobak ikastolan egindako etxetxoa, txakurra, eguzkia... Altzolako lagunak. Ikurrina. Erreala taldearen posterra, eta, nola ez! Preso guztiak. Horrelakoxea da Josuk horren ondo osatu duen mundua. Guztiak Josuren ohearen goiko aldean horman eskegita daude gauaren isilean berriketan aritzeko, eta koloretako ametsak trukatzeko: gorria, urdina... Gaur aprobetxatu nahi dut etxekoek, lagunek emandako aukera mingainari eragiteko, eta urliaz, sandiaz aritzeko, eta hogei urteko tarte luzean herdoilak hartutako Josuren diska-gogorra martxan ipintzeko. *Mutilzahar jarraitzen jok, orduan! Eta...? Baitxa!* Noiz edo noiz etentxoren bat egiten baldin badu ere arnasa hartzeko, edota lausotutako irudia bere buruaren pantailan hobeto ikusteko, momentuan ekiten dio elkarrizketari: *Bai, bajakixat nor den*.. Orduko lagunak, ezagunak..., danak aritu dira bueltaka Josuren oroimenak osatutako zirkuituan. Bitartean, isiltasunera ohitutakoak guri begira daude. Gure artekoan parte hartzeko gogo izugarria dute. Baina gaur nire txanda da. Euskal Herriko, Iparraldeko, Uruguaiko eta Argentinako kontuak pentsamenduen bidegurutzean behin eta berriro uztartu arren, Uruguaien bizi izandakoa beti geldituko da Josuren bihotzean: *Inoiz etxuat ahaztuko*. *Hangua..., itzela izan zuan*. Milaka eta milaka pertsonak bat eginda kalera irten, eta atxilotutako euskaldunen askatasuna eskatu zuten. *Etxuat inoiz ahaztuko poliziek hildako mutikoaren gorpua gure aurrean zauala amak esandakua: Ustedes no tienen la culpa*. Baina horiek aspaldiko kontuak dira, eta barruan erroturik baldin badaude ere, aurrera egiteko ordua da. Laster Josuren epaiketa izango da. Laster Claudi Bonadiok Josuren estradizioa erabakiko du, eta hori ezin dugu onartu, Josuri leporatutako karguek inolako oinarri judikorik ez baitute.

Josuren aldeko elkartasuna adierazi nahi baduzu, www.*josu-askatu.org* webgunean sartu, eta helarazi zure elkartasun oihua, datorren hilean euskaldun honen geroa, eta beste askorena, neurri handi batean, gure indarraren esku egongo baita.

**Juan Luis Mugertza Unanue**

## ARRISKUA SAN ANTOLINEN

San Antolingo auzotarrak eta bertan lan egiten debenak aspaldittik eskatzen dihardue semaforua edo/eta oinezkuentzako pasabidia ipini deixiela San Antolinen, N-634 errepidian.

Izan ere, kotxe, kamioi, autobus eta pertsona mogimendu haundixa egoten da gune horretan. Askok eta askok behar-beharrezkua izaten dogu, oinez nahiz kotxez, errepidia gurutzatzia lantegira edo etxera joateko. Horrez gain, askotan era bateko edo besteko obrak egitten jarduten debe inguruan... Bistan dago oso gune arriskutsua dala.

Hala eta guztiz ere, inork ez dau ezertxo ere egitten. Gure agintarixeri -sekulako promesak egitten dittuen horieri- ez jakue ajola auzuan ibiltzen geranok -bertan bizi diranak nahiz bestelakuak- bidia gurutzatu behar dogun bakoitzian beldurrak aidian eta arriskuan ibiltzia. Zer gerta leike, bada? Gehienera ere baten bat elbarri geratzia, edo hiltzia, besterik ez. Jakina, hor ez dago dirubiderik...

Eta ez deixiela esan arazua araztegixa egitteko obren ondorioz sortu danik, aspaldikua da-ta egoera tamalgarri hori.

**J.K.S. - 15.367.000-X**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzek ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia.**

ASTEKARIA
BARREN

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-posta:
barren@topagunea.com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.com/barren
ARGITARATZAILEA
Elgoibarko Izarra

**LAGUNTZAILEA** Elgoibarko Udala **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegii **ZUZENDARIA** Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **GERENTZIA** Jon Peli Uriguen **KOLABORATZAILEAK** Jasone Osoro, Ainhoa Lodoso, Nestor Fuente, Pello Mendizabal, Edurne Bilbao, Gotzon Arrieta, Lorea Perez de Albeniz, Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. **AZALEKO ESAERA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutik **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.220 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.*

## KEXAK

◆ Santa Klara auzoko bizilagun batzuk etorri zaizkigu, beraien etxe aurreko espaloian baldosa guztiak apurtuta eta solte daudela esanez: “**Santa Klara 20 eta 22 etxebizitzen aurreko espaloia zeharo puskatuta dago**. Baldosak solte daude, eta duela gutxi emakume bat erori zen. Udaletxean askotan kexatu gara, eta ez digute kasurik egiten. Mesedez, besteren bat erori eta mina hartu aurretik, baldosa horiek konpontzea eskertuko genuke”. ▶



◆ Herritar batek esan digunez, **“Arrantzaleen Pasealekua” oso arriskutsu dago King-Kong eta Madala bitartean**: “Ume ugari ibiltzen da “Arrantzaleen Pasealekuan” King-Kong eta Madala bitartean, eta ez dago batere ondo zati hori. Etxeen aldean zulo handia dago, eta beste aldean erreka. Oso arriskutsua da, eta egunen baten ezbeharren bat gertatuko da”.




◀ ◆ Herritar batek azaldu digunez, **Melitongo autobus geltokian ez dago markesinarik**: “Melitongo errotondan autobus geltokia dago, baina markesina falta da. Obrak egin berri dituzte, baina ez dute markesinarik jarri, eta euria egiten duenean edo eguzkiak gogor jotzen duenean ez dago autobusari itxoiteko aterperik”

## TXALOAK

◆ **Ikastolako 5. mailako eskubaloi taldeko neskek Irati Bollar eta Lara Urain txalotu nahi dituzte**, semifinal eta finalean entrenatzaile lanetan aritu direlako. Honekin batera, azkenengo bi partiduak ikustera joan ziren zaletuei eskerrak eman nahi dizkiete.

◆ **Guraso talde batek Ikastolako Eguna antolatu zutenak txalotu nahi ditu**: "goizetik animalien ekitaldiekin hasi eta arratsaldeko dantza saiora arte, tartean magiarako parada izanik, horren giro polita eta atsegina lortu zutelako parte-hartzaile guztien izenean txalo bero bat eman nahi diegu antolatzaileei". Errektore Kontseiluak bestalde, DBH3ko antolatzaileak eta partehartzaile guztiak eskertu nahi ditu. ▶





# Hau da Nahaste Bor

*Jose Maria Agirrebalzategi apaiz oñatiarra izan zen Nahaste Borraste probaren lehen sustatzailea. 1947. urtean antolatu zen lehen edizioa eta Jose Garitagoitia "Basueta" izan zen lehen irabazlea. Hiru urtez antolatu zen eta apaizak Elgoibartik alde egin zuenean bertan behera geratu zen. 1988. urtean Kimetz elkarteak proba berreskuratzea erabaki zuen. Partaide asko izan zituen, baita kanpotarrak ere. Bi tolosar izan ziren onenak: Amundarain eta Amondarain eta J. Basalo, berriz, herritarrik bizkorrena. Hurrengo urtetik aurrera herritarrek bakarrik parte har zezaketela erabaki zuten. Aurten 20. Nahaste Borrastea ospatuko da ekainaren 25ean, arratsaldeko 19:00etan. Lasterketa bitxi eta herrikoi honen inguruan gehiago jakin nahian ondo ezagutzen duten bi pertsonengana jo dugu. Felix Etxeberria "Parapan"ek 1948an irabazi zuen eta berrogei urte beranduago 1988koan ere parte hartu zuen. Martin Dominguez, berriz, bigarren etapako dominatzailea izan da. Sigmakoak bost alditan irabazi du.*



## Felix Etxeberria "Parapan"

*1948ko irabazlea*

## "15 duro eta ogi barra bat eman zien sari modura"

**Nahaste Borrasteren lehen edizioan parte hartu zenuen, ezta?** Bai halaxe da. 1947. urtean izan zen, 20 urterekin eta oraindik soldadu joan gabe nengoela. Ibilbide osoan aurretik joan nintzen, baina Jose Garitagoitia "Basueta"k aurria hartu eta 2. atera naban. Hurrengo urtean ni suertatu nintzan irabazle. 49koa nik irabazi nabala sartuta nakan buruan, baina beste batek ez zela hala izan esan berri dit.

**Zenbat parte hartzaile izan zineten?** Dozena eta erdi lagun izango ginen gehienez, guztiak ere pixka bat korrika ibiltzen ginenak. Orduan distantzia laburragotan ibiltzen ginen eta entrenatu ere gabez. Egun argiz antxintxika erdi zoroek bakarrik egiten zaben. Apustua eta jokoa zen nagusi eta batak bestia zer moduz zabilen ikusterik ez zen komeni. Askotan entrenatzen ikusiz gero ondo zabiltzan seinalea izaten zen. Ikusleak ere erruz biltzen ziren, garai hartan halako ikuskizunak apenas zauden-eta.

**Saririk jasotzen al zuen irabazleak?** Irabazleak 20 duro eta bigarrena izateagatik 15 duro eta ogi barra bat eman zien niri. 20 duro 3 eguneko biharraren ordaina zen. Ogia, berriz, "un pan para Parapan" esanez eman zidaten. Estimau naban, sobran ez zegoen ezer-eta. Pedro Beristini txuleta bat eman zioten azkena ailegatzearren.

**Zakuarekin iskanbila bat edo beste izan zen, ezta?** Bai, lehen bi urtetan hareaz betetako zakua erabili zen, baina hirugarren urtean tabloi edo ohol handi bat hasi ziren erabiltzen. Kaletarrek baserritarrei irabaztea nahi, eta zakuari kutxilua sartzen zieten. Plazara ailegatu orduko zakua hutsik egoten zen. Trikimailu hauek ez gertatzeko jarri zituen oholak Jose Maria apaizak, ari ez zegoen kutxilorik sartzerik, ez alajaina.

**40 urte pasa ostean berriz hartu zenuen parte.** Bai halaxe da. 88an Kimetz Elkarteak berriz ekin zion Nahaste Borraste antolatzeari eta parte hartzeko eskatu zidaten. Joseba Kondek gerra osteko proba hau nolakoa izaten zen azaltzeko eskatu zidan berreskuratzeko asmoa zutela-eta. Gauza hauek kontatu nizkion eta berak, berriz, parte hartzeko eskatu eta animatu egin ninduan. Uste baino hobeto aritu nintzan, ez baita berdina 20 urterekin edo 65 urterekin antxintxika ibiltzea. Nahiko ondo preparau nabala esan beharra daukat.



# rastea!



## Martin Dominguez

*1993/96/97 eta 2000/03ko irabazlea*

# "Nahaste Borraste proba agonikoa da sprint luze bat delako"

**Noiz hartu zenuen parte lehen aldiz Nahaste Borrastean?** Hirugarren urtean izango zen, 91n. Denera bederatzi aldiz parte hartu dot eta 5 alditan irabazi. Lehen urtetan bizikletan ondo aritzen nintzen, baina korrika nituen zailtasunak. Lehen garaipena 93an lortu naban. Ez nuen inolaz ere espero aurreko urtean 25. postuan sailkatu bainintzen eta ilusio handia egin zidan, noski. Noiz pasatuko ninduten begira nengoen, baina ez zen inor azaldu. Ortuostek zulatua izan zuen gurpilean eta horregatik irabazi naban. Bederatzi segundu bakarrik atera nizkion bigarrenari.

**Zein izan dituzu arerio gogorrenak?** Lehen 5 edo 6 urteetan Basalo, Ortuoste eta Zelaiaren artean zegoen “pikea” eta beraiek izan ziren irabazleak. Gero Txefe, eta David Conde izan ditut areriorik gogorrenak.

**Errekorarren jabe ere bazara, ezta?** Bai. 2000. urtean ezarri nuela errekorra uste dot, 21´21´´denborarekin. Bigarren sailkatuari minutu eta erdiko aldea atera nion. Afaltzen geundela Zelaiak aipatu zidan erraz irabazi nabala, norbaitek irabazi nahi baninduen ni bezainbeste entrenatu beharko zuela erantzun nion. Urte hartan duatloi dezentetan parte hartu nuen. Gero, 2002. urtetik aurrera ibilbidea aldatu zuten.

**Zer da gehien gustatzen zaizuna?** Batez ere egoten den giroa eta ondoren Kimetzen egiten dugun afaria. Proba bera gogorra da, agonikoa. Hasieratik dena ematera irtetzen gara eta hankak itota moduan, handituta nabari dituzu. Sprint luze bat modukoa da hasieratik amaieraraino.

**Non dago Nahaste Borraste irabazteko gakoa?** Lasai irten behar da, baina irabazle mentalitatearekin, hau da, onena zarenaren ziurtasunarekin.

**25 kiloko zakuak asko baldintzatzen al du proba?** Ez dot uste. Zakua ondo eramateko korrikalari ona izatea dela garrantzitsua uste dot. Ez da indar kontua. Zakua nola eraman badago aldea, ordea. Bakoitzak bere modua dauka.

**Animatuko al zenuke jendea parte hartzera?** Bai horixe. Hasieran jendeak proba herrikoi moduan ikusten zuen, edozeinek parte hartzeko modukoa. Gogoan daukat urte batzuetan koadrila osoek parte hartu zutela. Espiritu hori berreskuratzea ondo legoke. Tamalez, jendeak parte hartzen dugunok beti kirola egiten dugunak garela ikusten du eta beldurtu egiten da. Bere garaian Dakintak edo iaz Julen Agirrek egin zaben moduan hartzerik ere badago, patxadaz, alegia. Hasi nintzenean ni ere horrela aritzen nintzen, irabazteko inolako asmo eta aukerarik gabe, baina jadanik ezin naiz libratu erlojuaren eta pultsometroaren tiraniatik. Beti daukadan dena ematera ateratzen naiz orain.



### NAHASTE BORRASTE

**IRABAZLEEN ZERRENDA**

| Urtea | Irabazlea |
|---|---|
| 1947 | Jose Garitagoitia |
| 1948 | Felix Etxeberria |
| 1949 | ? |
| 1988 | J. Basalo |
| 1989 | X. Zelaia |
| 1990 | J. Basalo |
| 1991 | X. Zelaia |
| 1992 | J.R. Ortuoste |
| 1993 | M. Dominguez |
| 1994 | D. Conde |
| 1995 | J.F. Iglesias |
| 1996 | M. Dominguez |
| 1997 | M. Dominguez |
| 1998 | X. Oliveira |
| 1999 | J. San Martin |
| 2000 | M. Dominguez |
| 2001 | I. Konde |
| 2002 | D. Conde |
| 2003 | M. Dominguez |





# 1.824 botorekin EAJ izan zen nagusi Elgoibarren

## %50,52ko abstentzioa izan zen Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan

Abstentzioak markatutako hauteskundeetan, EAJ izan zen nagusi Elgoibarren. Zentsuaren erdiak ez zuen botorik eman ekainaren 13an. Europako Legebiltzarrerako hauteskundeetan, %50,52ko abstentzioa izan zen Elgoibarren. 1999ko hauteskundeekin konparatuz, nabarmen egin du gora abstentzioak; orduan %29,70ekoa izan baitzen.

**1.824 botorekin EAJ nagusi**

Botoen zenbaketa egin ostean, EAJ nagusitu zen Elgoibarren 1.824 botorekin. Bigarren indarra, PSE-EE izan zen 788 botorekin, eta hirugarrena PP 483 botorekin. Hauen atzetik, EAk 455 boto lortu zituen, IUk 107, eta Aralarrek 61. Bestalde, baliogabeko botoen artean, Herritarren Zerrendak 651 boto jaso zituen.




### Alfredo Etxeberria (EAJ)



"Gure tendentzia mantendu egin da, eta orokorrean oso pozik gaude. Herritarren Zerrendak jasotako boto nuluak baliozkoak balira, 99ko hauteskundeekin konparatuta 5 puntutan igo gara. Abstentzioa oso altua izan da, baina ez gaitu harritu. Hala ere, gure boto fijoak asko dira Elgoibarren. Hauteskunde bakoitzari daukan garrantzia eman behar zaio, eta jendeak Europako Hauteskundeei ez die garrantzia handirik eman. Guretzat garrantzitsuagoak datorren urteko autonomikoak izango dira".

### Ovidio Campello (PSE-EE)



"Espero genuen emaitza lortu dugu. Bagenekien abstentzioa oso altua izango zela, eta ez gaitu harritu. Gure helburua, aurreko hauteskundeetan lortutako 2. postua bermatzea zen, eta lortu dugu. Orokorrean oso gustura geratu gara emaitzarekin".

### Iñigo Arkauz (PP)



"Lehenik eta behin, EAJ-PNV alderdia zoriondu nahi dut, berriz ere, Elgoibarren boto gehien lortu dituen alderdia izan delako. Europako hauteskundeetako puntu garrantzitsuena abstentzioa izan da, eta ondorioz, denok lortu dugu boto gutxiago. PSE-EEk berriz ere gainditu egin gaitu, baina orokorrean pozik gaude, Gipuzkoa mailan 99an baino emaitza hobeagoa izan dugulako".

### Angeles Ortuoste (EA)



"Ez da sorpresarik egon. Gure betiko tendentzian jarraitzen dugu. Beti ere, hobetu nahian, baina abstentzioa oso altua izan denez, horrek ere guri eragin digu eta boto gutxiago lortu ditugu. Abstentzioa espero genuen, baina ez balitz hain altua izan, hobe izango litzateke. Hala ere, ez gara asko jaitsi. Espero genuena lortu dugu".

### Unai Zulaika (IU-EB)



"Argi ikusi da ezker aldeko boto emaileak oso kritikoak direla eraikitzen ari den Europa ekonomikoarekin, eta ondorioz, abstentzioa oso altua izan da. 99ko hauteskundeekin konparatuz, Ezker Batua izan da diferentzia txikiena izan duena, eta hori positiboa da. Hemendik aurrera garai berri bat hasiko dugu, eta oso ilusionatuta gaude".

### Pello Mendizabal (HZ)



"Baldintza zailenetan ere, Ezker Abertzalea indartuta atera da. Martxoko hauteskundeetatik, HZ izan da botoetan gora egin duen bakarra. Euskal Herriak eta Elgoibarrek babes zabala eman diote ezker abertzaleari autodetermina-zioaren bidean aurrera egin dezan. Abstentzioari dagokionez, argi ikusi da Europako egitasmo honek ez duela jendea erakartzen, jendea ez da Europa honekin identifikatzen".

## Urruzuno bailarako jaiak ospatuko dira bihar, ekainak 19

Txapligo jaurtiketarekin emango zaie hasiera bihar, ekainak 19, arratsaldeko 18:00etan Urruzuno bailarako jaiei. Ondoren, meza, trikitilariak, haur jolasak, herri kirolak eta anaiarteko afaria izango dira.



**San Juanak, Altzolan**

Ekainaren 23an San Juanak hasiko dira Altzolan. Lau egunetako egitaraua antolatu dute, eta adin guztietako jendearentzako ekitaldiak izango dira. San Juan zuhaitza landatu, eta San Juan sua piztuko dute San Juan Bezpera egunean. Horretaz gain, beste hainbat ekitaldi izango dira, besteak beste, meza nagusia eta Salbea, trikitilariak, zezentxo eta poniak, eta musika. Ekainaren 26an bukatuko dira jaiak.

## 23. Makina Erremintaren azokak bisita ugari ekarri ditu IMHra



Ekainaren 7tik 12ra arte, Makina Erremintaren 23. Biurtekoa izan da Barakaldon. Azokak ikusle ugari erakarri zituen eta hauetatik askok IMH bisitatu eta ikastetxeko proiektu berriak ezagutzeko aukera aprobetxatu zuten. Besteak beste, Costa Rica-ko Zientzi eta Teknologiako Ministroa eta INA Estatuko Prestakuntza Institutuko Presidentea, MARA Malaysiako gobernuko Zuzendari Teknikoa eta Txinako Lanbide Heziketa ikastetxeetako ordezkaritza. Bestalde, IMHko ikasle, irakasle eta teknikariak azokan izan ziren postuak ikusi eta berrikuntzak ezagutzen.

## Auzoko tabernari ohiak omendu zituzten San Migeldarren Egunean

San Migeldarren Eguna ospatu zuten Aiastia auzoan joan zen igandean, ekainaren 13an. Aurtengoan, auzoko tabernari ohiak omendu zituzten: Floren Goikoetxea, Jose Salegi, Pedro Amutxastegi eta Maria Zelaia. Meza Nagusiarekin hasi zuten eguna, eta ondoren, auzoko lau eta erdiko pilota finalaren azken partidua jokatu zen Murkaikupe frontoian. Bazkal ostean, Gardokirekin dantzaldia izan zen. Eguraldi bikaina egin zuen, eta auzokide asko bildu ziren.



## 180 euroko isuna ordena publikoaren kontrako faltagatik

Sergio Fernandez elgoibartarrak 180 euroko isuna ordaindu beharko du, Udaltzainen kontrako kartelak jartzeagatik. Joan zen otsailaren 2an, "Euskadiko emagalduek 10. udaltzaina ez dela gure semea ziurtatzen dugu", irakur zitekeen kartela jarri zuen Pedro Muguruza Etorbideko horma batean. Herriko udaltzain bat izan zen ekintza honen testigu, eta Sergio Fernandez salatu zuen. Sententzia atera da dagoeneko, eta 60 egunetan, 3 euro ordaindu beharko ditu Sergio Fernandezek ordena publikoaren aurkako faltagatik.

## San Bartolomeetako programaren azala aukeratzeko lehiaketa

Udaleko Kultura Batzordeak, San Bartolomeetako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. 18 urtetik gorako guztiek hartu dezakete parte, eta lanak aurkezteko azken eguna uztailaren 8a izango da. Teknika librea izango da, baina ezinbestekoa da "Elgoibar, San Bartolome jaiak 2004" testua agertzea. Irabazleak 450 euro jasoko ditu, eta sari berezia 200 eurokoa izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero, Kultura Zerbitzura deitu daiteke, goizez (943-74 21 58).



*Mª TRINI REY TOBAJAS*

*Lagun maitagarri*
*bezain alaia.*
*Miñez dugu bihotza*
*eta negarrez begiak.*

***Zure lagunak***

## Europako Legebiltzarrerako Hauteskundeetan %50,52ko abstentzioa izan zen Elgoibarren

# EMAN AL ZENUEN BOTOA EUROPAKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAN?



### Mª VICTORIA GONZALEZ

**41 urte, banatzailea**

Ez. Hauteskundeak izan zirela ere ez nintzen enteratu. Ez dut informaziorik jaso, eta kanpainarik ere ez dut jarraitu. Normala da abstentzio handia egotea, jende asko ez baita ezertaz enteratu.

### LUIS FERNANDO AYESTA

**46 urte, kalitate arduraduna**

Bai. Abstentzioarena argi zegoen, ez baitute azaldu hauteskunde hauek zertarako diren eta eguraldi ona egin zuen. Astean zehar ospatuko balira, eta enpresek tarte bat laga botatzeko, partaidetza altuagoa litzateke.





### ATSEGIN UZURIAGA

**30 urte, administraria**

Bai, nik eman nuen botoa. Hala ere, jendeak ez dauka europar sentimendurik, eta normala da botorik ez ematea. Europa osoan gertatu da gauza bera, urruti geratzen da. Ez dituzte ondo saldu hauteskunde hauek.

### ANA IRIONDO

**35 urte, etxekoandrea**

Bai, baina parean tokatu zitzaidalako, bestela, egun pasa joango nintzateke kanpora. Azkenaldian hauteskunde asko izan ditugu, eta jendea aspertuta dago. Abstentzioa altua izatea normala da.





### MAITE RODRIGUEZ

**37 urte, bibliotekaria**

Bai, ni ez nago portzentaje horren barnean. Eguraldi oso ona egin zuen igandean, eta jende asko, gogoratu ere ez zen egin hauteskundeekin. Gainera Europa oso urruti dago, eta jendea ez da berarekin identifikatzen.

### AITOR MUÑOZ

**25 urte, iturgina**

Ez. Eguraldi oso ona egin zuen, eta jendeak beste plan batzuk egiteko aprobetxatu zuen eguna. Jende nagusia izan zen batez ere, botoa eman zuena, gazteek oso gutxi.



LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

GAZTE GEHIGARRIA · 2004ko ekainaren 18/ XII urtea/493. zkia

# Gaztia BARRen

NAIZ



# NUDISMOA, NATURALKI!

Mikel Olaizola ELKARRIZKETA Nudismoa GAIA Ion Odriozola LOTSAGABE

## "SESIONES 224-226"

### TRES HOMBRES

Joan zen larunbatean berriro izan genuen Tres Hombres Euskal Herrian. Talde madrildarrak era guztietako publikoa bildu zuen Zumarragako plazatxoan eta denek ongi asetuta egin zuten etxerako bidea. La Vaca Azul taldearen proiektu paraleloa da Tres Hombres eta larunbatean Gaztelupeko Hotsak zigiluak argitaratu duen beraien bigarren estudioko lana aurkeztu ziguten: "Sesiones 224-226". Esperientzia handiko musikariek osatzen dute banda: Vacas baxujolea eta "Pax" bateria, kasurako, Deluxe eta Los Reyes del K.O. taldeekin ere aritzen dira eta Jairo Zavala gitarjole eta abeslaria, hainbat telebista saiotan jotzeaz gain, Amparanoia taldearekin ere aritzen da. La Vaca Azul taldean uzta propioko kantak egiten badituzte ere, proiektu honetan musika beltzean oinarritutako bertsioak dira nagusi: James Brown, Elmore James, Memphis Slim... eta nola ez ZZ Top. Beraien bigarren lan honetan haizezko instrumentuen atala da berrikuntzarik aipagarriena. Dudarik gabe, funky abestiei sinesgarritasun eta kolore gehiago ematen diete saxo eta tronboi doinuek. Zumarragan bi diskoetako kantak entzun ahal izan ziren, feeling eta gustu izugarriaz eskainiak. Kontzertu erdian eszenatoki aurrean jarri zituzten aulkietatik altxa eta hasieratik dantzan genuen gorputza askatzeko pausua eman genuen askok. Atera kontuak!

**Ion Gurrutxaga**




entzun

## MIKEL OLAIZOLA, bertsolaria

# "Bertsotan ikasi egin leike edukitzea inportantea da"

**EUSKAL HERRIKO BAT BATEKO BERTSO LEHIAKETA FINALEAN HARTUKO DU PARTE BIHAR MUNGIAN, MIKEL OLAIZOLAK. ELGOIBARTAR GAZTE HONEK 13 URTE DITU. TXIKITATIK DATORKIO BERTSOTARAKO ZALETASUNA, ETA IAZ HASI ZEN IKASTOLAKO ERRAZU BERTSO ESKOLAN BERTSOLARITZA IKASTEN. BERAK AZALDU DIGUNEZ, BERTSOTAN EGITEN IKASI EGITEN DA, BAINA BERTSOLARI SENA IZATEA ERE GARRANTZITSUA DA. BARRENETIK SUERTERIK ONENA OPA DIOGU BIHARKO TXAPELKETARAKO.**



**Aurkeztuko diguzu zure burua bertso batekin?**

*Aurkeztu beharko naiz*
*gaur hasi aurretik:*
*bertsolaritzan nabil*
*aurreko urtetik,*
*ni hona etorri naiz*
*leku on batetik*
*Errazu izeneko*
*bertso eskolatik*

**Bihar Euskal Herriko Bat Bateko Bertsolaritza Finalean hartuko duzu parte, urduri al zaude?**

Oin momentuan ez, lasai nao, baina bixar tablau gainera igotzen naizenian, seguru nerbioso ipiniko naizela.

**Nola gainditzen da urduritasun hori?**

Behin kantuan hasitakoan. Minutu bateko kontua dela pentsatzen dot, eta berehala lasaitzen naiz.

**Espero al zenuen honaino iritsiko zinenik?**

Ez, gure helburua Gipuzkoako finalera iristia zan. Hortik aurrera ez gendun ezer planteau, baina oso pozik gaude.

**Irabazteko aukerarik?**

Ez dot uste. Probintzia bakoitzetik bost lagunek hartuko dogu parte, eta maila oso altua dao. Batzuk lehenao ere ibili-

# baina sena

txakuak dia, eta zaila izango da irabaztia.

**Nola hasi zinen bertsotan?**

Iaz hasi nintzan Errazu bertso eskolan bertsolaritza ikasten. Astian behin elkartzen gera bertsuak eitxen ikasteko, eta bat batian abesten ikasteko beste entsaio batzuk eitxen ditxugu.

**Nondik datorkizu bertsorako zaletasuna?**

Txikitatik gustatu izan zaizkit bertsuak. Gurasuei ere gustatzen zaie, ta eurengandik jaso doten zaletasuna da.

**Bertsotan ikasi egiten da, edo bertsolari sena izan behar da?**

Ikasi ein leike, baina bertsolari sena eukitzia inportantia da, eta batipat, bertsolaritza gustuko izatia.

**Zein ezaugarri izan behar dira bertsolari izateko?**

Bertsolaritza gustatzia, jende aurrian kantatzeko lotsarik ez eukitzia eta euskeraz ondo jakitzia.

**Idatzizkoa ala bat-bateko bertsolaritza duzu nahiago?**

Gehixo bat batekua gustatzen jata, idatzizkua erretzaua da. Lasaixo idazten dia, eta ez da momentuan kantau bihar. Bat batekuan aritzeko asko entrenau bihar da.

**Geratu al zara sekula zuriz bertso saioren batean?**

Ez, behin ahaztu ein zitzaidan abestu bihar nabana, eta asmatu ein nuan zati bat. Nik uste dot igarri eingo zala.

**Zein da zure bertsolari gustukoena?**

Unai Iturriaga gustatzen jata asko.

**Elgoibarren ba al dago bertsolaritzarako zaletasunik?**

Ez gehixegi. Bertso eskolan 12 pertsona inguru gaude. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiet, Ainhoa Mendibil, Erlantz Allur, Pake Garzia eta Ikastoliari orokorrian. Eta nerekin kantatzen duten Mikel Arrieta eta Danel Mendibili ere bai.

**Bukatzeko, bota bertso bat gure aldizkariari.**

*Euskara bultzatzea*
*da txit pozgarria*
*horretarako Barren*
*leku egokia*
*astero irtetzen da*
*gure astekaria*
*ez da inoiz bukatuko*
*ez, zure bizia*



**"Lotsa gutxi izatea eta euskaraz ondo egitea ezinbestekoa da"**

irakurri

## "1280 ARIMA"

### JIM THOMPSON

Jim Thompson estatubatuarrak nobela beltz originala plazaratu zuen "1280 arima" izenburuko liburu honetan (Elkar argitaletxea). Izenburu horrek "Potts County" izeneko herriskako biztanle kopuruari egiten dio aipamena. Herriska horretan dagoen sheriff-a Nick Corey izeneko gizon ustez kaikua da. Berak bere zeregina "ezer ere ez egitea" dela uste du. Horrela, lan orduak lo kuluxka luzetan ematen ditu. Baina aurki sheriff berria izendatzeko prozesua hasiko da eta Coreyk lana egin beharko du karguan segitu nahi badu. Orduan jakingo dugu zer nolakoak egiteko gauza den pertsona bere helburuak lortzearren. Thompsonek, Oklahomako Caddo indiar erreserban jaiotako idazleak, nobela beltzean ohikoak diren gaiak aurkezten dizkigu bere liburuan: indarkeria, botere nahia, gaiztakeria... Baina osagai horiek istorio guztiz ezohiko batean mamituta agertzen dira, izan ere, kasu honetan, legearen barruan jokatzen baitu sheriff protagonistak, bera baita legea. Nobela, umorez josia dago eta irakurleak ezingo du behin baino gehiagotan irrifar egitea saihestu sheriff-aren kontura... Bukaerarako farre egiteko gogorik gelditzen baldin bazaio behintzat.

**Jon Eugi**



# Eguzkia hartzeko m

**Hondartzan zaudetela izan al duzue inoiz bainujantzia edo bikinia kendu, eta larru bizirik eguzkia edo bainu bat hartzeko tentaziorik? gutxinaka bada ere, gero eta gehiago dira gure artean naturismoa praktikatzea erabakitzen dutenak. Euskal Herria nahikoa ezkutuan dauden hainbat hondartza eta kala txikiz josita dago eta ezagunagoak diren naturismo gune "ofizialagoak" ere badaude. Hortaz, eta tentazioari eutsi ezin badiozue, erreportaje honetan aurkituko duzue nora jo dezakezuen uda honetan.**




Euskal Naturista Elkarteak (ENE) bere web gunean eskaintzen du naturismoaren definizioa: naturarekin harmonian bizitzeko modua da, norbere buruaren, besteen eta ingurune naturalaren gaineko errespetuan oinarritutako bizimodua, alegia. Nudismoa, berriz, pertsona hauen bizitza ulertzeko moduaren ezaugarririk adierazgarriena da. Gizarteak oraindik baztertzen eta diskriminatzen duen ezaugarria, ENEkoen arabera.

Biztanleriaren %2ak baino gutxiagok praktikatzen du naturismoa Espainiar Estatuan. Euskal Herrian aspalditik daude naturistak, baina 70. hamarkadan hasi ziren biltzen eta euren eskubideak defendatzen. Lehen elkarte serioa, Euskal Naturista Elkartea (ENE) 1998. urtean sortu zen. Egun 250 bazkide inguru batzen dituzte. Naturismoaren hazkundea sustatzea da elkartearen helburu nagusia eta nudismoa praktikatzeko gune propioak aldarrikatzen ditu. Honekin batera nudistek jasaten duten diskriminazioa gutxitzea ere badu helburutzat, gizartean aurreiritzi asko baitaude sustraiturik. Naturismoa aukera bat gisa defendatzen du elkarte honek eta jendea bainujantzia kentzera animatu, honekin batera gizarteak ezarritako aurreiritzi moralak ezabatuta geratuko direlako ziurtasunean.





Azken urteetan lan asko egin dute eta besteak beste, gida ofizialetan gune nudistak agertzea lortu dute eta baita naturarekin zerikusia duten hainbat irteera antolatu ere. Elkarteak nazioarteko naturista txartela egiteko aukera ere eskaintzen du eta Artxandako (Bilbao) Udal Igerilekuak hilean pare bat orduz nudistentzat izan daitezen lortu du.

# odurik NATURALENA

**GIPUZKOA**

Saturraraneko hondartza
Zarautzeko hondartza
Donostiako Santa Clara uhartea

**Gune hauetaz gain nudismoa praktikatze ohitura dago: Tximistarri kala (Ondarreta eta Igeldo artean), Monpaseko hondartza (Zurriola eta Monpas artean), Mendata (Sakoneta/Deba), Murgita kala (Ulia eta Pasaia artean), Zazpi hondartzak (Mutriku)*



**IPARRALDEA**

Las gemelas hondartza (Hendaya)
Cien Escaleras (Biarritz)
Erretegia kala (Bidart)
Loia kala (Hendaya)
L´Ocean (Anglet)




**BIZKAIA**

La Salvaje hondartza (Barinatxe)
Barrikako hondartza
Meñakoz hondartza
Azkorri hondartza (Gorrondatxe)
La Cantera hondartza
Ogeia hondartza (Ogella)
Lapatxa kala (Natxitua)

**Hauez gain: Tunel Boca hondartza (Larrabasterra), Matxitxako lurmuturra, Anzoras (Laida eta Laga artean), Hendai eta Milloi (Lekeitio eta Ondarroa arteko errepidean).*

**NAFARROA**

Allozeko urtegia
Yesako urtegia



**ARABA**

Arrangua landa (Arroiabe)
Arroiabeko lakuko landa

**Hauez gain: Marieta (Elgeako akueduktu ondoan), Elosu, Nafarrete eta Albinako urtegia.*

## Naturismoa legearen ikuspuntutik

1978an Konstituzioa indarrean jarri zenetik nudismoa askatasun edo eskubide bat gehiago izatera pasa zen. Frankismo garaiko nudismoaren aurkako legediaren aztarnak geratzen ziren, ordea. Gauzak horrela, eskandalu publiko delitua existitzen zen eta honek nudismoa zigortzen zuen. Nudismoa praktikatzeko gune konkretuen sorrera eragin zuen egoera honek.

Egungo kode penalaren arabera nudismoa ez da delitu kontsideratzen. Hortaz, baimen eta galerazpen guztiak konstituzioak dioenaren aurkakoak dira, diskriminatzaileak beraz. Momentu honetan edozein espazio publikotan praktikatu daiteke nudismoa, inolako baimen beharrik gabe. Espazio publikoak dira: hondartza, erreka, laku, zelai, bide, errepide, kale, plaza, parke, etab. Hortaz, ezin da nudismoa murriztu, zehatu eta are gutxiago galarazi.

Dena dela, demokrazioan gauden arren, diskriminazio handia jasaten duen giza taldea da nudistena, ezin baitira askatasunez adierazi. Oraindik gerta liteke polizia joan eta arropak janzteko eskatzea. Euskal naturista Elkarteak beraiekin kontaktuan jartzeko gomendatzen du nudismoa praktikatzeagatik inoiz arazorik izanez gero. Horrelako kasuetan nola jokatu, aholkuak eta legediaren berri ematen dute.

### INFORMAZIOA

**Euskal naturista Elkartea**
Posta Kutxatila 22 · 48250 Zaldibar (Bizkaia)
**Telefonoa:** 649 78 11 38
*info@ene-naturismo.org*
*http://ene-naturismo.org*



http:/ ionodriozola@com / 14 urte

# lots@gabe

*Parte hartu nahi baduzue deitu edo etorri BARRENera. Animatu!*

**@ Gaztea naiz eta ez nago konforme…**
Gurasoek etxera itzultzeko jartzen didaten ordutegiarekin. Eztabaida asko izaten ditugu.

**@ Etxeko lanak egiten al dituzu?**
Pixka bat laguntzen dot. Zaborra jaitsi, mahaia jarri…

**@ Ohe azpia garbitzen jenioaren lanpara topatu duzu. Eskatu 3 desio.**
Hegan egiteko abilezia, niretzako gela propioa eta ordenadore berria.

**@ Denboraren makina bazenu, zer garaitara joango zinake?**
Paleolitikora, dinosauroak asko gustatzen zaizkit.

**@ Udako "rollitoak" ala erlazio luzeagoak?**
Ez naiz hasi horretan pentsatzen, baina ikasten hasteko "rollitoak" nahiago.

**@ Zein adin eduki nahiko zenuke betirako?**
Orain daukadana edo 16 eta 18 urte bitartean, askatasun eta parrandarako aukera gehiago izateko

**@ Zer egiten duzu neska bat gogoko duzunean?**
Zuzenean aurpegira esan eta kitto!

**@ 50 euro jauzi zaizkio gizon bati...**
Ez nizkioke itzuliko eta lagunekin afari bat eginez gastatuko nuke diru hori.

**@ Miresten duzun pertsona bat?**
Che Guevara.

**@ Inoiz egingo ez zenukeen zerbait?**
Espainiar futbol selekzioko kamiseta jantzi.

**@ Itsasoan bainua hartzen bainujantzia galdu duzula konturatu zara?**
Gertatu zait. Eskerrak bainujantzia aurkitu naban. Bestela ondoko hondartzaraino joango nintzake igerian edo lagunei laguntza eskatu.

**@ Esaidazu "politikoki zuzena" ez den zerbait.**
Ez nago ados neskak mutilak baino argiagoak direla esaten dutenekin. Bakoitzaren araberakoa da hori, baina ez genero kontua.

**@ Zerk edo nork atera zizkizun koloreak azken aldiz**
Gelan izan zen. Irakasle batek pertsonala iruditu zitzaidan niri buruzko komentario bat egin zuen.




maitasuna laztan
pornografia ORGASMO
penetrazioa sexualita
masturbazioa

## Handia izandakoan...
# delineatzailea
## izan nahi dut





**JANIRE URGOITIA**

*Janire Urgoitia Proiektu Mekanikoen Garapena izeneko modulua ikasten ari da IMHn. 19 urteko neska gazte honek, argi ikusi zuen Batxilergoa bukatu zuenean, bere burua lan mundura bideratu nahi zuela, eta ez zuela unibertsitatera joan nahi. Arraroa den arren, Humanitate Batxilergoa ikasi ostean, teknologia alorreko modulua ikasten hasi zen, eta kontatu digunez, oso gustura aritu da.*

**Zergatik aukeratu zenuen Proiektu Mekanikoen Garapena modulua?**
Etorkizuna eta lanerako aukerak hartu nituen kontuan. Erreminta Makinaren munduan IMH prestigio handiko ikastetxea da, eta lan munduan sartzea nahi nuenez, modulu bat egitea erabaki nuen. IMHren eskaintza begiratu, eta hauxe izan zen gehien gustatu zitzaidana.

**Argi zeneukan unibertsitatera joaterik ez zenuela nahi?**
Bai. Humanitate Batxilergoa egin nuen enpresaritza ikasketak egiteko asmoz, baina berehala aldatu nuen ideia. Orain krisi egoeran murgilduta egon arren, Makina Erremintaren munduak irteera handiak dauzka Elgoibarren, eta nire burua lan mundura bideratzeko erabakia hartu nuen.

**Zenbat urteko modulua da?**
Bi urteko ikasketak dira. Lehenengo urtean ikasgai desberdinak izan genituen. Bigarren mailan, lehenengo ikasturtean ikasitako asignatura guztiekin proiektu bat egin genuen. Lehenengo urtea astunagoa egin zitzaidan.

**Espero zenuena aurkitu al duzu?**
Bai. Asko gustatu zait modulua, eta irakasle eta gainontzeko ikasleekin izandako harremana oso ona izan da.

**Praktikak egiten al dira?**
Bai. Bigarren mailan 2 hilabete eta erdiko praktikak egiten dira enpresetan. Ni Etxe-Tar enpresan nabil, eta oso gustura nago. Ikasitakoa praktikan jartzeko aukera izan dut, eta gainera IMHn ikasitako jende asko dagoenez bertan lanean, oso ondo hartu naute.

**Zer iruditu zaizu zailena?**
Marrazketa. Humanitate Batxilergotik etorri naizenez, arazo handiak izan ditut marrazketarekin, eta modulu honetako ikasgai garrantzitsuenetarikoa bera da. Delineatzaile ona izateko marrazten jakitea ezinbestekoa da.

**Animatuko al zenuke jendea modulu hau egitera?**
Orain Erreminta Makina ez dago oso egoera onean, baina berez, lan handia eskaintzen duen alorra da. Beraz, mundu hau gustuko duen edonor animatuko nuke.

### DELINEATZAILEA

**IZENA**
Proiektu Mekanikoen Garapena

**IRAUPENA**
Bi urte

**PRAKTIKAK**
Bigarren ikasturtean, bi hilabete eta erdiko praktikak enpresetan.

**IKASGAIAK**
Ingelesa, marrazketa, elementuak, materialak, proiektuak...
Lehenengo mailan ikasgai desberdinak. Bigarren mailan, ikasgai horiek praktikan jartzeko proiektua egitea.

# sexualitatea
## konplejurik gabe



**Eli Moreno**
**SEXOLOGOA**

**LOTSAGABE BILUZTU**

Pelotetan jartzen zerala? LOTSAGABE! Eskandalu publiko bat da, haurren aurrean exhibitzen, besteak probokatzen!!!!!
Ai maitia! Agian, zu bakarrik probokatu zara!, ai, bero, bero!
Beste hauek ere entzuten dira:
- klaro nik halako gorputza izango banu… baina honela…
- Ezagutuko ez banindute, baina nere lanakin gainera, imaginau nere kontsultako norbaitekin elkartzen naizela…
- …

Zenbat buelta! Bakoitzak erabaki dezala! Ez da derrigorrezkoa! ERRESPETUA BAI! Bakoitza bakarra da, bakoitza gure gorputza gara, eta gu bakoitza ez gara lotsagarriak. Lotsagarria izan daitekeena eta probokazio hutsa, hauen erabilera da; honen inguruan sortzen den merkatua, halako kotxea halako gorputza, halako kolonia halako gorputza!!! Lotsagarria dena lortu ezinezko edertasun eredu hori egotea da, edertasun eredu bat eta bakarra!!!! Zorionez ni bat eta bakarra naiz, zuek guztiok bezalaxe.

*Biluzik Sexologia Zerbitzua*
*(Astelehena 17:00-20:00)*
*Gazte Informazio Gunea. Kultur Etxea. Bigarren solairuan. Tel. 943 74 14 61.*
*E-maila: biluzikzerbitzua@yahoo.es*

# kontzertuak

## ekaina

### 18 barixakua

**BILBO**
**22:00 Martires del compas**
Kafe Antzokian

**BERGARA**
**21:30 Life of agony eta Hedtrip**
Sala Jam

### 19 zapatua

**BERGARA**
**20:00 Marillion eta Gazpacho**
Sala Jam

**SORALUZE**
**23:00 Morau eta Agotak**
Ezozi Auzoan

### 24 eguena

**BERGARA**
**21:00 Soulfly**
Sala Jam

**ARRASATE**
**23:00 Triki ta Ke**
Plaza

### 26 zapatua

**AULESTI**
**23:00 Alaitz eta Maider**
Plazan

## uztaila

### 3 zapatua

**BERGARA**
**00:00 Techno jaia**
Sala jam

**AMOROTO**
**23:00 Su ta gar**
Pilotalekuan

### 10 zapatua

**SORALUZE**
**22:30 Karidadeko Benta**
San Andres Auzoa

### 16 barixakua

**ARRASATE**
**22:00 Kokein**
Ferrerias plaza

---

gazte informazioa

*Elgoibarko Gazte Informazio Gunea*
*Kultur Etxean. Bigarren solairuan.*
*e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es*
*Tel. 943 741 461*

*Ordutegia:*
*Asteartetik-ostiralera: 16:30-20:00*

**BEKAK**

**Turismoa**
Eusko Jaurlaritzak 2004 ekitaldirako turismoaren sektorean unibertsitate-ikerketa sustatzeko 3 beka antolatu ditu. Beka hauek turismo diplomatuei, enpresa eta turismo jardueren teknikariei eta unibertsitateko lizentziatuei zuzenduta daude. Beka bakoitzak 12 hilabeteko iraupena izango du eta diru laguntza 13.822 eurokoa izango da. Epea: uztailak 2

**Kontsumoa**
Eusko Jaurlaritzak kontsumoaren arloan prestatzeko eta ikertzeko 5 beka antolatu ditu. Kontsumo arloko material didaktikoa prestatu eta hedatzeko beka, kontsumitzaileari argibideak emateko materialak prestatu eta hedatzeko beka, eta kontsumo eta arbitraje-epaiak ikertzeko eta aztertzeko bekak. Epea: uztailak 2

**JARDUERAK**

**Udako kanpamenduak**
Alto Ebro Fundazioak 8 eta 18 urte bitarteko gazteei zuzendutako udako kanpamenduak 2004 antolatu ditu. Udalekuok Ebro Garaiko "Peninsula de la Lastra" Ingurumen Hezkuntzako Zentroan izango dira, uztaila eta abuztuan, 15 eguneko txandatan. Epea: ekainak 29

**LEHIAKETAK**

**Narratiba eta poesia**
Zumarragako eta Urretxuko Udalek elkarlanean antolatu dituzte 2004ko Narratiba eta Poesiako Iparragirre sariak. Lanak euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztu daitezke, ondoko luzerak kontutan hartuz. Narratiba: 6 orritik 12 orrira bitarteko luzera. Poesia: 200 lerrotik gora. 600 euroko saria hizkuntza eta modalitate bakoitzeko irabazle bakarrarentzako. Epea: ekainak 25

**LANA**

**Gizarte-laguntzaileen lan poltsa Azkoitian**
Azkoitiko Udalak, gizarte-laguntzaileen lan poltsa sortzeko deialdia egin du. Lan poltsa honek hiru urteko iraupena izango du. Baldintzak: gizarte laguntzaile titulua edo baliokidea eta euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna izatea. Epea: uztailak 1

**Nafarroako Unibertsitate Publikoa**
Nafarroako Unibertsitate Publikoko Informatika Zerbitzuetako Administrazio Kudeaketako Eskalan 14 plaza betetzeko lehiaketa-oposaketa. Baldintzak: Goi Mailako Teknikari, Batxilergoa, edo baliokidea den tituluaren jabe izatea. Epea: ekainak 29


MEKANOSA
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ PLANOEN BIRREGILEAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN
Xixilion, 2 · 3.sotoa ☎ 943 74 36 52 - 74 27 89
KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

# Pilar ikastetxearen jabetza gurasoek hartu dute

Datorren ikasturtetik aurrera, gurasoek kudeatuko dute Pilar Ikastetxea. San Biatorreko apaizek Guraso Elkartearen esku utzi zuten Ikastetxearen jabetza, eta ekainaren 1ean egindako bileran, zuzendaritza batzorde berria osatu zuten. Batzorde honetan, irakasleek ere izango dute beren lekua, eta bileretan parte hartu ahal izango dute, ikastetxearen funtzionamendua hobetu ahal izateko.



Batzorde berri honek prentsaurrekoa eskaini zuen, eta mezu positiboa bidali nahi die proiektu berri honetan sinisten ez zutenei: “Pilar Ikastetxeak zabalik jarraitzen du”, adierazi zuten. Hasiera batean egoera oso beltza zen arren, guraso batzuen ekimenez, Ikastetxea ez da itxiko. Irakasle guztiek bertan jarraituko dute lanean, eta beraien nahia, beste ikastetxe batzuetan izena eman dutenak bueltatzea da: “Beldurrak bultzatuta, guraso askok beren seme-alabak beste ikastetxe batzuetan matrikulatu zituzten. Gure helburua ikasle horiek Pilar Ikastetxera itzultzea da, izan ere, ikasle kopurua oso garrantzitsua da aurrera jarraitu ahal izateko”.

**193 ikasle**

Guraso Elkartearen hasierako helburua, sei urtez ikastetxea irekita mantentzea da. Hala ere, ikasle kopurua handituko balitz, askoz urte gehiago irautea gustatuko litzaieke. Hasierako egoera beltzaren ondorioz, 249 ikasle izatetik, 193 izatera pasa zen ikastetxea. Egungo egoera guztiz desberdina da, eta Gurasoen Elkartekoek, alde egin zuten ikasle horiek bueltatuko diren itxaropena azaldu zuten.

## “Maritxipiren Eguna” jaialdia ospatu zuten ostiralean

Kiribilka programaren barnean, "Maritxipiren eguna" jaialdia egin zuten ostiralean Plaza Handian. Maritxipiren irudiarekin txotxongilo bat egin zuten lehenengo eta ondoren jolasak eta hainbat kanta desberdin ikasteko aukera izan zuten haurrek. Jaialdia bukatu zenean, orain arte ikasitako kantekin eginiko liburutxo bat banatu zieten haurrei. Antolatzaileen esanetan, aurreko saioan baino jende gutxiago gerturatu zen, baina joan zirenek ondo pasatu omen zuten.



## Giro bikaina izan zen Ikastolaren Egunean



Ikastolaren Eguna izan zen joan zen larunbatean, hilaren 12an. Goizeko 11:00ak aldean hasi, eta egun osoan zehar, adin guztietako haurrentzako ekitaldiak izan ziren Ikastolan. Jolasak, gaztelu puzgarriak, eskulan eta tailerrak, eta kirol ekintzak. Eguerdian bazkaria egin zuten, eta arratsaldean jaialdiarekin jarraitu zuten. Jende ugari hurbildu zen Ikastolara, eta ikasle, guraso eta irakasleek giro onean ospatu zuten Ikastolaren Eguna.

## Pilar Ikastetxekoak San Pedron eta Arraten izan ziren

Pilar Ikastetxeko LH1etik LH4ra arteko ikasleek San Pedrora egin zuten kurtso bukaerako irteera. Plaza Handitik, oinez igo ziren San Pedroarino, eta egun bikaina pasatu zutela kontatu digute. LH5 eta LH6. mailakoak berriz, Arraten izan ziren. San Pedron geldiune bat egin eta hamarretako jan ostean, Arrateraino igo ziren. Bertako Amabirjina bisitatu, eta eguna ekintza ezberdinak eginez pasatu zuten.





# Bi bikote elgoibartarrek Debarroko Pilota Txapelketako finala jokatuko dute

## Bestalde, Lagunak Pilota Txapelketaren finalak gaur jokatuko dira Plaza Handian

Lagunak Pilota Eskolako kadete eta jubenil mailako pilotariek Debarroko Pilota Txapelketaren finalean sartzea lortu dute. Finalok Eskoriatzan jokatuko dira ekainaren 26an, zapatuan.

Txurruka eta Portu kadeteek eskoriatzako pilotariak izan zituzten aurrez aurre finalaurrekotan. Joaneko partidan 22 eta 4 irabazi zuten Eskoriatzan eta itzulikoan ere ez zuten arazo gehiegirik izan 22 eta 10 irabazi baitzuten Ikastolako frontoian. Agirrebeña eta Arrieta jubenil mailako pilotariak ere finalaurreko bi partiduak irabazita pasa dira finalera. Oñatiko Aloña Mendi taldeko pilotariak izan zituzten aurkari eta bai joaneko partidan eta baita itzulikoan ere emaitza berbera lortu zuten elgoibartarrek, 22 eta 13, alegia. Ulaziak eta Loiolak ere nagusien mailako finalaurrekoak jokatu dituzte, baina ezin izan dute Bergarako bikotea gainditu eta finaletik kanpo geratu dira. Lehen partida 22 eta 8 galdu zuten Bergaran eta 13 eta 22 bigarrena Elgoibarren.



*Txurrukak eta Portuk kadete mailako finala jokatuko dute*

**Lagunak Pilota Txapelketa**

Bestalde, Lagunak Pilota Txapelketa iritsi da amaierara. Finalak, gaur, hilak 18, jokatuko dira Plaza Handian 18:00etatik aurrera (euria egingo balu Ikastolako frontoian 21:00etatik aurrera).

# Ia 200 lagunek hartu zuten parte Tenis Jaialdian



Eskola Kirolari amaiera emateko urtero antolatzen du Tenis Jaialdia Udal Kirol Patronatuak. Aurtengoa seigarren urtea izan da eta aurrekoetan bezala, Kataluniako Divertenis enpresaren laguntza izan dute. Tomas del Olmo elgoibartarra da tenisaren inguruan lan egiten duen enpresa honen zuzendaria. Aurten gainera, Andres Gimeno junior, Roland Garros irabazi zuen izen bereko tenislariaren semearekin etorri zen Elgoibarrera. Goiz eta arratsaldez luzatu zen jaialdia eta ia 200 gaztetxok izan zuten Olaizaga kiroldegian prestatu ziren joko eta txapelketetan parte hartzeko aukera. Joko benetan bitxiak prestatu zituzten antolatzaileek eta gustura egon ziren bertaratutakoak. Arratsaldean mini-tenis txapelketak jokatu ziren eta Ander Ortega eta Rakel Avila izan ziren irabazleak.

# Elgoibar Ikastolako 5. mailakoak Gipuzkoako txapeldun eskubaloian

LH 5. mailako Elgoibar Ikastolako neskek Gipuzkoako Eskubaloi Txapelketa irabaztea lortu dute. Donostiako Bidebieta kiroldegian jokatu zuten finala usurbildarren aurka. Emozio handiko partidua izan zen eta berdinduta bukatu zuten amaieran. Bost minutuko luzapena jokatu behar izan zuten eta elgoibartarrak 3 eta 2 nagusitu ziren. Meritu handiko garaipena lortu dute neska hauek, urte bat gehiagoko aurkariekin lehiatu behar izan baitute.



*Ezkerretik hasita: Irati (entrenatzailea), Garazi, Leire, Ane, Amaia, Aintzane, Amaia, Kristina, Lara (entrenatzailea). Izaskun, Ane, Zuriñe, Maite, Estibaliz, Maria eta Ainhoa. Argazkian falta da: Antton Arizmendi (entrenatzailea).*

## Abel Hernandez txapeldunorde Azkoitiko Tenis Txapelketan

### Ander Oñederrak bikotekako txapelketa irabazi zuen Agustin Kintana azpeitiarrarekin bikote eginez

Abel Hernandez tenislari elgoibartarrak ezin izan zuen iaz lortutako garaipena errepikatu eta Azkoitiko Tenis Txapelketako txapeldunordetzarekin konformatu behar izan zuen. Agustin Kintanaren aurka jokatu zuen finala joan zen ekainaren 5ean. Zapatillan sartua duen harri txintxarra modukoa da azpeitiarra elgoibartarrarentzat. Ez da bere joko motara moildatzen eta oraindik ezin izan dio irabazi. Ordubetean hartu zuen mendean Kintanak 6 eta 0 eta 6 eta 3. Aurrez 7 partidu jokatu eta irabazi zituen Abelek finalera sailkatzeko. Orain Mutrikuko txapelketa ari da jokatzen, bera dugu hain zuzen ere iazko txapelduna.



**Bikotekako txapelketa**

Ander Oñederrak Abelek baino zorte hobea izan zuen eta Agustin Kintanarekin, banakako txapelketa irabazi zuen azpeitiarrarekin, bikote eginez txapela jantzi zuen bikoteka. 6 eta 1 eta 6 eta 2 irabazi zieten Fidel Larrañaga azkoitiarrari eta Mikel Perez zumaiarrari.

## EMAITZAK

**Esku pilota**

**Debarroko Txapelketa**

Eskoriatza **4** – Lagunak **22 (Kad.)**
Lagunak **22** – Eskoriatza **10 (Kad.)**
Aloña Mendi **13** – Lagunak **22 (Jub.)**
Lagunak **22** – Aloña Mendi **13 (Jub.)**
Bergara **22** – Lagunak **8 (Nag.)**
Lagunak **13** – Bergara **22 (Nag.)**

**Lagunak Txapelketa**

A. Murua **18** – A. Astigarraga **13 (Benj.)**
M. Gurrutxaga **18** – B. Iriondo **8 (Benj.)**
F. Conde **11** – I. Amesti **18 (Benj.)**
I.Txurruka **18** – A. Gurrutxaga **9 (Benj.)**

## AGENDA

**Esku pilota,** Plaza Handian

**Barixakua, 18**

**18:00** M. Gurrutxaga – A. Murua **(Benj.)**
**18:30** I. Txurruka – I. Amesti **(Benj.)**
**19:15** H. Arribillaga – A. Lizarralde **(Inf.)**

## 38 mendizalek jaso zuten domina Finalista Egunean

Joan zen domekan ospatu zuen Finalista Eguna Morkaiko Mendizale Elkarteak Idotorben. Urtean zehar mendiak igotzen egindako esfortzuaren ordainetan domina bana jaso zuten 38 mendizale gaztek. Sarituetako asko Saturixotik gora oinez igo ziren Idotorberaino, guraso eta Morkaikoko zuzendaritzakoen laguntzaz. Sari banaketa ostean luntxa izan zen eta bakar batzuk bertan bazkaltzen geratu ziren eguraldi zoragarria aprobetxatuz.



**5 MENDI**
Mikel Garmendia

**10 MENDI**
Jon Ansola
Imanol Ansola
Garazi Aranburu
Mikel Arriola
Asier Garmendia
Jon Guillo
Julen Guillo
Iker Hernandez
Iera Hernandez
Haritz Igartua
Maialen Solabarrieta
Lore Mendizabal

**15 MENDI**
Ander Armendia
Iosu Barrenetxea
Mikel Garate
Joseba Iriondo
Ibai Konde
Miren Konde

**20 MENDI**
Ane Astiazaran
Unai Astiazaran
Aitor Barrutia
Nora Bastida
Nerea Bastida
Ainhitze Etxeberria
Goizeder Etxeberria
Imanol Iturrino
Danel Legorburu
Leire Melgosa
Gorka Melgosa
Iker Oñederra
Nora Santiago
Lorea Santiago

**20.000 M**
Eñaut Ladron
Ion Odriozola
Asier Odriozola
Ander Osoro
Garazi Osoro

Langai
Euskal Lan Zerbitzua

Arrasateko enpresak **komertziala** behar du. **Erref. 162004004673**

Gipuzkoako enpresak **informatik irakaslea** behar du. **Erref. 162004004357**

Elgoibarko enpresak **zaintzailea** behar du. **Erref. 162004004559**

Gipuzkoako enpresak **kamioi gidaria** behar du. **Erref. 162004002115**

Gipuzkoako enpresak **web orrien diseinatzailea** behar ditu. **Erref. 162004004458**

Debako enpresak **CNC tornurako langilea** behar du. **Erref. 162004004457**

Arrasateko enpresak **erizaina** behar du. **Erref. 162004004382**

Gipuzkoako enpresak **programatzailea** behar du. **Erref. 162004004452**

Azkoitiko enpresak **rebabatzailea** behar du. **Erref. 162004004360**

Bergarako enpresak **sukaldaria** behar du. **Erref. 162004004481**

Eibarko enpresak **fresadorea** behar du. **Erref. 162004004420**

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauetako batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

## Lana

### ESKAERA

♦ Emakumea, garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **639 88 20 04**

♦ Neska gazte euskalduna, ekainean eta uztailean lan egiteko prest. Batez ere, umeak zaintzen. ☎ **617 986 068**

♦ Emakumea, garbiketa lanak egin, nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. Asteburuetan ere bai. Erreferentzia onak ditut. ☎ **626 91 49 04 (10:30-18:00)**

♦ Neska etxez etxe manikura egiteko prest. ☎ **610 349 809**

♦ Emakumea etxeko lanak egiteko prest. Egun solteak. ☎ **943 74 22 01 Araceli**

♦ Emakumea gaixoak zaintzeko prest. ☎ **943 17 28 96 Mertxe**

♦ Emakumea orduka adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **662 09 46 24**

♦ Neska gazte euskalduna udan lan egiteko prest. ☎ **669 682 990**

♦ Emakumea garbiketa lanetarako prest. Elkarteak, tabernak... ☎ **639 88 20 04**

♦ Administraria, astean zehar, arratsaldez orduka ofizinan lan egiteko prest. Ez dago kontratu beharrik. ☎ **646 39 92 52**

♦ Neska astean zehar, arratsaldez lanerako prest. ☎ **646 39 92 52**

### ESKAINTZA

♦ Pertsona bat behar da larunbatetan gaixo bat zaintzeko. 10:30etik 13:00etara, eta 17:00etatik 17:30era. ☎ **657 77 00 79**

♦ Kamarera gaztea behar da asteburuetarako. ☎ **943 74 37 71**

♦ Tabernan lan egiteko neska edo mutila behar da. Astegunetan eta asteburuetan txandaka lan egiteko. ☎ **943 74 28 97**

♦ Udan umeak zaintzeko pertsona behar da. ☎ **676 15 46 00**

♦ Asteburuetarako kamareroa behar da. Jatetxeko barrarako. ☎ **635 75 16 42 (15:00-20:00 artean deitu)**

♦ Neska edo mutil euskalduna behar da Mintxetako harreran lan egiteko. Abuztua eta iraila. Kurrukulumak 32 postakutxatilara bidali.

♦ Kamarereoa behar da asteburuetan lan egiteko. Esperientziarekin. ☎ **652 77 82 10/652 77 82 60**

## Etxebizitzak

♦ Mendaro: Herriko Enparantza. $92m^2$, 3 logela, jangela, sukaldea, 2 bainugela, oso argitsua, kamarotea, garajea, altzariekin, igogailua. Sartzeko moduan. 39.600.000 Pts. / 238.000,79 euro. ☎ **943 82 05 10**

♦ Pisua alokatzen da Benidormen. 15 egun edo hilabete. ☎ **607 47 04 75**

♦ Etxea salgai Errosario 27an. 3 logela, sukaldea, komuna, despentsa, ganbara, egongela, 3 balkoi, berogailua. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **943 74 02 68/699 179 872**

♦ Benidorm. Apartamentua aokatzen da. ☎ **943 76 38 10 (goizez)/ 943 74 06 28 (iluntzean)**

♦ Etxebizitza salgai Pedro Muguruzan. 3 logela, bi komun, egongela, sukaldea, trasteroa. Aukeran, garajea trastero handiarekin. ☎ **943 74 41 85**

♦ Santa Klara 20an pisua salgai. ☎ **653 72 30 95**

♦ Atiko bat saldu edo alokatzen da Altzolan. ☎ **943 74 13 39**

♦ Bikoteak pisua hartuko luke alokairuan Mendaron. ☎ **669 61 73 (Miren)**

♦ Etxea salgai. 4 logela eta egongela. Egoera onean. ☎ **606 706 711**

♦ Etxe eguzkitsua salgai Mendaron. 3 logela, sukaldea, komuna eta ganbara. Berritua, altzariekin. ☎ **645 72 60 90**

♦ Etxea osatzeko pertsona behar da. ☎ **615 76 55 15**

♦ Pisua hartuko nuke alokairuan. Gutxienez bi logela. ☎ **943 74 35 99/ 675 00 84 97 Mari Jose**

♦ Etxea salgai Jausoro Plazan. 2 logela, egongela-jangela, komuna, sukaldea, balkoia, garajea. 228.000 euro. ☎ **943 74 34 23/626 42 35 91**

♦ Pisua konpartitzeko pertsona behar da. ☎ **645 70 14 93**

♦ Etxea salgai Santa Ana kalean. Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, despentsa. Bizitzera sartzeko moduan. ☎ **636 22 31 42**

## Lokalak

♦ Usurbilen, Urbil merkataritza zentro ondoan, 420m2ko lokala salgai edo alokatzeko. Bulego bezala erabiltzeko egokia. Lokal argia, ordenagailua askorentzako lekua, eta sarea. ☎ **943 36 30 40**

## Garajeak

♦ Garajea alokatzen da Santa Ana 2an, Ametsa parean. ☎ **615 787857**

♦ Garajea alokatzen da Urbitarten. ☎ **943 74 06 88**

## Salerosketak

♦ Egurrezko 7 ate salgai. Bi kristalarekin 82zm. zabaleran. Berriak. Oso merkea. Prezio negoziagarria. ☎ **676 92 94 53**

♦ Renault clio autoa salgai. CDI. Bi urte. ☎ **660 551 534**

♦ Renault Twingo 1.100, 16v. salgai. 25 hilabete, 29.000km. Aire egokitua, airbag, kenwood musika. Berria. Prezio onean. ☎ **639 628 763**

♦ Sofa salgai. 3 jarlekukoa, eta bat relax. Egoera ona. 480 . ☎ **943741262**

♦ Golf 1.600 autoa salgai. Urtebete. 13.000 km. ☎ **943742039/620173701**

♦ Kymko Dink Solc salgai. 390 km. Berria, beti garajean. ☎ **607 44 38 10**

♦ Seat Toledo Sport 2.0 autoa salgai. 115 cv. gasolina. 160.000 km. SS-AN. Egoera ona. 1800 euro ☎ **617719121**

♦ Citroen ZX autoa salgai. 2.0, 16v. ☎ **659 71 57 22 (Iosu)**

♦ Egongelarako egurrezko altzari modernoa salgai. Abedul eta gereziondokoa. Prezio eta egoera onean. ☎ **636 355 631 Mirtia**

♦ Hyundai Poni autoa salgai. SS-AT. Bost ate. 30.000 km. ☎ **635 20 88 87**

♦ Kotxerako irrati telebista salgai (Alpine). CD kargatzailearekin (6 CD eta MP3). 1.300 euro. ☎ **636 607 187**

♦ Renault 5 autoa salgai. 750 euro. ☎ **699 81 25 66**

♦ 2. eskuko desbrozadora erosiko nuke. ☎ **639 84 10 01**

♦ Mountain Bike-a erosiko nuke. 2. eskukoa, egoera onean. ☎ **943 74 45 16**

## Bestelakoak

♦ Autokarabana alokatuko nuke abuztuan. ☎ **686 882 162**

♦ Bi txakurkume oparitzen dira. ☎ **660 511 781**

## Partikularrak

♦ Ingeles klase partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Elgoibar eta Mendaron. ☎ **679 11 34 46**

♦ DBH eta LHko partikularrak ematen dira uztailean. ☎ **625 42 05 49**

♦ LHko klase partikularrak ematen dira uztailean. Edozein arlo ☎ **606307563**

♦ Ingelesezko partikularrak ematen ditut uztailean. Maila guztiak. Ingeles filologian lizentziatua. 10 urteko esperientzia. ☎ **943 74 31 67/653 72 28 11**

♦ Ingeles partikularrak ematen dira. Maila guztiak. Esperientzia daukat. ☎ **617 35 98 33 (Maria Jesus**

♦ Uztailean LH eta DBHko lengoaia eta matematika kalseak emango nituzke goizez. ☎ **943 74 42 06**

## Agurrak



♦ Zorionak **Ander Muguerza!** Bihar ospatuko dugu zure bosgarren urtebetetzea. Urduri al zaude? Animo, gutxi geratzen da-eta.



♦ Zorionak **Anetxu!** Bi urtetxo bete zenituen eta aste honetan ospatu ditugu. Oso goxuak karameluak. Muxuak Ikastolako laguntxoen partez.



♦ Zorionak **"Bitxo"** zure laugarren urtebetetzean. Familiakoen eta bereziki, ahizpa Iraitzen partez.



♦ Zorionak **Unai**, ekainaren 17an, sei urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Julen**, hilaren 16an, 10 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



♦ Zorionak **Arkaitz**, bihar, hilak 19, 14 urte egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki arreba Maider eta Eneritzen partez.



♦ Zorionak **Nerea**, ekainaren 22an, 3 urteko egingo dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Juleneren partez.



♦ Zorionak **Mikel**, hilaren 20an, urtebete egingo duzulako. Muxu handi-handi bat etxeko guztien partez.



♦ Zorionak **Ion,** ekainaren 14an, 3 urte egin zenituelako. Familiako guztien, eta bereziki, Oihanaren partez.



♦ Zorionak **Andoni**, ekainaren 13an zure eguna izan zelako. Julene, Olaia eta familiako guztien partez.



♦ Zorionak **Haritz Igartua**ri, ekainaren 17an, 9 urte egin zituelako. Gurasoen, eta bereziki, anaia Eñauten partez.



♦ Zorionak **Eritz**, hilaren 15ean, bi hilabete bete zenituelako. Gurasoen partez.



♦ Zorionak **Aritz** eta **Goiuri** zuen urtebetetzean. Etxeko guztien partez.

**OHARRA:**
Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

## Farmazia - okindegia

| | EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|---|
| 18 | Ibañez | Ibañez |
| 19 | Bidasolo | Bidasolo |
| 20 | Bidasolo | Bidasolo |
| 21 | Etxeberria (Santa Ana kalean) | Etxeberria |
| 22 | Fernandez | Fernandez |
| 23 | Yudego | Yudego |
| 24 | Zabaleta | Zabaleta |
| 25 | Etxeberria (Errosario kalean) | Etxeberria |

**FARMAZIAK**

**ESCALA,** Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ,**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA,** Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

**OKINDEGIA**
20 igandea Fotero

## 18 BARIXAKUA

19:00 **EGUR TAILERRAREN ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA**
Kultur Etxean

## 19 ZAPATUA

9:30 **IGERIKETA EGUNA**
Olaizaga Kiroldegian
Antolatzailea: Elgoibarko Igeriketa Taldea



## 20 DOMEKIA

19:00 **GELATXO ORKESTRAREKIN DANTZALDIA**
Plaza Handian

## 22 MARTITZENA

19:00 **C.D. ELGOIBARREN BATZAR OROKORRA**
Kultur Etxean

## 25 BARIXAKUA

19:00 **NAHASTE BORRASTE**
Irteera: Plaza Handian
Antolatzailea: Kimetz Elkartea

## JAIAK

**ALTZOLAKO SAN JUAN JAIAK**

### EKAINAK 23, EGUAZTENA

(San Juan bezpera)

14:30 **Txapligu jaurtiketa eta kanpai hotsak**
19:00 **Meza Santua eta Salbea;** santuari festetako zapia jartzea
20:00 **San Juan zuhaitza jartzea**
22:30 **San Juan Sua errekan**
23:00 **Aguirre taldeak alaitutako dantzaldia**

### EKAINAK 24, EGUENA

(San Juan Eguna)

06:00 **Herriko portalean San Juan adarrak jartzea**
11:00 **Prozesioa eta Meza Santua,** Elgoibarko parrokiako abesbatzak lagunduta
12:00 **Trikitilariak**
18:30 **Pilota partidu ikusgarriak**
Ondoren **"Pakito"ri omenaldia**
20:00 **Sorpresa handia**
22:00 **Trikitilariak**

### EKAINAK 25, EGUAZTENA

(San Juan Txiki Eguna)

14:30 **Herri bazkaria**
19:00 **Zezentxoak eta poniak**
22:00 **Aguirre taldeak alaitutako dantzaldia**

## KIROLAK

**Igeriketa Eguna**

Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatuta, Igeriketa Eguna ospatuko da zapatu honetan, ekainaren 19an, Olaizaga kiroldegiko igerilekuan. Bertan, hainbat igeri proba ikusteko aukera izango da. Goizeko 9:30ean gaztetxoenen txanda izango da, 95-96 urteetan jaiotako haurrek 25 metro kroll, 25 metro bizkar eta 4x4 errelebo libretako probetan igeri egingo baitute. 93-94 urtean jaiotakoen txanda izango da 10:30ean eta 11:30ean, berriz, 91-92 urteetan jaiotako igerilariena.

## ERAKUSKETAK

**Margo erakusketak Mendaron**

Bi margolari mendaroarrek eta japoniar batek margo erakusketak jarriko dituzte ikusgai Mendaron datozen egunetan. Arno-Otaerre aretoan izango dira erakusketa guztiak eta Joe Jimenezen lanak ikusi ahal izango dira lehendabizi, ekainaren 17tik 27ra, hain zuzen ere. Aitor Etxeberriak, berriz, uztailaren 2tik 11ra bitartean jarriko ditu bere margolanak. Azkenik Nori Ushijima japoniarraren arte lanak uztailaren 16tik 25era izango dira ikusgai.



## EUSKARA

**Udako euskara ikastaroak**

Udal Euskaltegiak uda ikastaroetako matrikula epea irekita dagoela jakinarazten du. Euskalduntze eta EGA ikastaroak. Klaseak goizez izango dira. Informazio gehiago: Nafarroa Enparantza 2 edo 943 74 27 31 telefonora deituta goizeko ordutegian.

**Euskara irakaslea izateko ikastaroak**

Aurtengo udan, helduen euskalduntze munduan irakasle izan nahi dutenentzat, Glotodidaktika ikastaroak emango dira Eibarren. Ikastaroa, ekainaren 28tik uztailaren 23ra izango da eta 100 orduko iraupena izango du. Izena emateko epea, ekainaren 21era arte luzatuko da. Informazio gehiago nahi izanez gero, joan Plaza Txikian dagoen AEK euskaltegira edo 943 741332 telefonora deitu.

## UDALEKUAK

**Udaleku irekiak Mendaron**

Mendaroko In Leikeko begirale taldeak ikastolako haurrentzako udaleku irekiak antolatu ditu. Udalekuak ekainaren 28tik uztailaren 22ra arte egongo dira irekita. Haurrak bi taldetan banatuko dituzte: alde batetik txikiak (3-6 urte), egunero goizeko 10etatik 12:30etara eta bestetik, handiak (1. mailatik gorakoak) astelehen, asteazken eta ostiraletan goizeko 10etatik 13:00etara. Udalekuetan parte hartu nahi dutenek Mendaroko Ikastolan eman beharko dute izena eta In Leikek Kutxan duen kontuan dirua sartu. Azken eguna ekainak 18, barixakua, izango da

## IRTEERAK

**Santa Kutzera irteera**

Mendaroko Aisialdi taldekoen Trikixapo programa Santa Kutzera irteerarekin amaituko da bihar. Mendaroko haur eta gurasoentzako irteera izango da. Bertara joan nahi dutenek bi aukera izango dituzte: oinez joan nahi dutenak Garagartzako plazan elkartuko dira arratsaldeko 16:30etan. Autoz igo nahi dutenek berriz,17:00etarako San Kutzen egon beharko dute. Eguraldi txarra egingo balu jolas hauek frontoian dira arratsaldeko 17:00etan.

**Milagrora irteera (Nafarroa)**

Jubilatuen Biltokiak Milagrora (Nafarroa) txangoa antolatu du. Ekainaren 30ean, eguaztenean, izango da irteera udaletxe paretik egingo da. Goizeko 8:00etan aterako da autobusa. Izena ematerakoan 25 euro ordaindu beharko dira. Jubilatuen Biltokira jo izena eman eta informazio gehiago nahi izanez gero.

## DEIALDIA

**Elgoibarko plano gida**

Nekar enpresak, Elgoibarko Udalarekin elkarlanean, Elgoibarko plano gida eguneratu nahi du. Hori dela eta, bertan publizitatea jarri nahi duten denda, komertzio, industriek e.a., beraiekin harremanetan jarri beharko dira, 616 083 526 (Roberto) telefonora deituz.

## zine
### KARTELDEGIA

**ELGOIBAR,**
**Herriko Antzokian**

**“Van Helsing”**
18, barixakua: 22:15
19, zapatua: 19:30-22:15
20, domekia: 19:30-22:15
21, astelehena: 22:15
**“Vidas ajenas”**
25, barixakua: 22:15

**EIBAR, Unzaga**
**“Harry Potter”**
18, barixakua: 19:30-22:15
19, zapatua: 17:00-19:30-22:30
20, domekia: 17:00-19:30-22:30
21, astelehena: 19:30-22:15
22, martitzena: 19:30-22:15
23, eguaztena: 19:30-22:15

**EIBAR, Rialto**
**“El Abrazo partido”**
18, barixakua: 19:30-22:15
19, zapatua: 17:00-19:30-22:30
20, domekia: 17:00-19:30-22:30
21, astelehena: 19:30-22:15
22, martitzena: 19:30-22:15
23, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

# ZINEA



## "Van Helsing"

**Zuzendaria: Stephen Sommers.**
**Antzezleak: Hugh Jackman, Kate Beckinsale, Richard Roxburgh.**
Karpatoen bihotzean kokatuta dago Trantsilvania mitiko eta misteriotsua. XIX. Mendean girotua dago filma eta Trantsilvaniaz gain, Londonen, Erroman eta Parisen ikusiko dugu Abraham Van Helsing (Hugh Jackman) banpiro ehiztaria. Leku guztietan gaizkiaren aurka borroka egin beharko du giza arraza babesteko eta Drakula kondea izango da areriorik anker eta boteretsuena. Anna Vale-rious (Kate Beckinsale) ausartaren laguntza ezinbestekoa izango da.

# erretratu zaharra

2004-VI-18




Aste honetako erretratu zaharra **Iñaki Insaustik** laga digu. 1980. urteko otsailaren 7ko argazkia da, eta Donostian aterata dago. Egun horretan, Elgoibarko Jubilatuek beraien eskubideak errespetatu eta Konstituzioko 50. Artikulua betetzeko eskatuz, manifestaldia egin zuten. Bertan, beste herri batzuetako jubilatuak bildu zitzaizkien, eta denek, aho batez, jubilatuentzako laguntzak eskatu zituzten.

Argazkian ageri diren asko, kanpotarrak dira, baina elgoibartar batzuk ikus daitezke: (1) **Eusebio Gil (✝)**, (2) **Jose Mari Rivero (✝)** (Elgoibarko Jubilatuen Egoitzako lehenengo presidentea), (3) **Herminia Anton**, (4) **Juanita San Martin eta** (5) **Teresa Aginaga**. Ziur beste norbaitek ere bere burua ezagutuko duela, baina guk ezin izan dugu elgoibartar gehiagoren izenik lortu.



*ESKERTZA*

*2004ko ekainaren 14an, 82 urte zituela hil zen,*
*LUIS JAUREGI OLLOKIEGIren emazteak, seme-alabak,*
*bilobak, anai-arrebak eta gainerako sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



*ESKERTZA*

*2004ko ekainaren 13an, 32 urte zituela hil zen,*
*JESUS MEJUTO CIDen sendiak,*
*bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak,*
*hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*


Jaika
jatetxea
· 25 - 30 lagunentzako jangela
· 6 - 8 lagunentzako jangela pribatua
· Karta zabala
· Enkarguzko menu bereziak 15 €tik hasita
· Eguneko menua 7 €
Pedro Muguruza, 27 behea
Tel.: 943 74 10 29


Iraileko EGA azterketa
Deialdi itxian edo irekian egiteko aukera
Eskolak uztailean edo irailean
Langabetuek, gurasoek eta ikasleek matrikula erdia, udalaren laguntzaz
Izena eman ekainaren 28a aurretik
¡Refresca tu euskara!
aek
Euskaltegia
Plaza Txikia, 3
Tel.: 943 74 13 32
elgoibar@aeknet.net

# GREMIOEN GIDA

## AROZTEGIAK

**BIENA**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ **943 74 31 16**

**ETXEKIT**
Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ **943 74 43 47**

**GARCIA**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ **943 74 32 38**

**LODOSO**
Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ **943 74 34 90**

**SORALUZE**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ **943 74 36 34**

**ULAZIA**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ **943 74 05 47**

**ZABALA**
Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea, 16
☎ **943 74 03 96**

## ITURGINTZA, GASA, KALEFAKZIOA ETA KLIMATIZAZIOA

**ANGEL**
Santa Ana, 5
☎ **943 74 17 61**
☎ **689 04 92 06**

**ONGI**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ **943 74 28 80**

**PAGOAGA**
San Antolin, 13
☎ **943 74 02 79**

**TELLABIDE**
Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ **943 75 50 62**
☎ **607 75 50 62**

**ZALDUA**
Urasandi, 26
☎ **943 74 05 30**

## PINTURAK

**BIOK DEKORAZIOA**
Santa Klara, 11 behea
☎ **943 74 15 52**
☎ **606 43 11 19-20**

**IPINTZA**
Foruen enparantza, 4
☎ **943 74 04 40**
☎ **607 74 04 40**

## ELEKTRIZITATEA

**ARAMAR**
Morkaiko, 1
☎ **943 74 12 80**

**AZPELETA**
San Frantzisko, 51
☎ **943 74 12 38**

**JOSEBA**
Pedro Muguruza, 29
☎ **943 74 09 02**
☎ **659 93 49 64**

**URZELAI**
Santa Ana, 12-14
☎ **943 74 13 76**

## IGELTSERITZA

**ANTONIO MARKEZ**
Urasandi, 24
☎ **943 74 34 18**

**JOSE LUIS MENDEZ**
Urasandi, 24
☎ **943 74 29 87**
☎ **679 19 77 47**

**E. ARANDIA**
Urasandi, 17
☎ **605 70 52 04**

## ISOLAMENDUAK

**GLAS CONTROL S.L.**
Isolamenduak
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ **943 74 30 94**